

1. AKTA

2002ko urtarrilaren 21ean ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean, bi mila eta biko urtarrilaren hogeita batean, Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian eta Joseba Belaustegi Cuesta Idazkaria bertan delarik, hurrengo zinegotziak bildu dira:

Joseba Portugal Arteaga j.
Rikardo del Pozo Gil de Albornoz j.
Obdu Lorenzo de Dios a.

arauz kurtsatu eta publikatu den deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko. Ez du ezin-
etorria agertu Anjel Ouviaña Vidal jaun zinegotziak.

Lehendakaritzak konstataturik Udalbatza legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batza-
rraldia irekitzat eman du 12:45etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekinez.

1.- Aurreko batzarraldietako aktak 16 eta 17 a. hurrenez hurren 01-12-20 eta 01-12-28 datakoak irakurri eta onartzea.

Bertakoen kontsiderazioan jarririk atalburuko aktak, Gobernu Batzordeak erabaki du beren osoan
ontzat eman eta dagokien aktaliburuan transkribatzea.

2.- "Donibanera heltzeko barrutia, Lezo-Bide kalea, berriz urbanizatzeko" 6. Obra ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez erabaki du ontzat ematea "Donibanera heltzeko
barrutia, Lezo-Bide kalea, berriz urbanizatzea" Obraren 6. ziurtagiria, Joan Karlos Lapazaran
(Arkitektoa), Igor Urrutia (Bide, Kanal eta Portuetako Injinerua) eta Jose M^a Irazusta (Udal
Aparejadorea) Obra Zuzendari Jaunek luzatua CONSTRUCCIONES OTEGI, S.L. enpresa
kontratistaren alde, BI MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO ETA
BERROGEITA HAMALAU ZENTIMOKO INPORTEZ (417.686,- pezeta).

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko D-1227/01 Disposamenduaren kargura.

3.- "San Pedro 2.01 Morales Oliver. Eremua: Markina Injinerua eta Herriko Plazaren A.U.- ren urbanizazioa" obraren 5. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea "San Pedro 2.01 Morales Oliver. Eremua: Markina Injinerua eta Herriko Plazaren A.U.-ren urbanizazioa" obraren 5. ziurtagiria Joan Karlos Lapazaran (Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta (Udal Aparejadorea) Obra Zuzendari Jaunek luzatua COBRA INSTALACIONES Y SERVICIOS, S.A. enpresa kontratistaren alde, EHUN ETA HOGETA BOST MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU EURO ETA BERROGEITA HAMAIKA ZENTIMOKO inportez (20.910.313,- pta.).

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-457/01 Baimenduaren kargura.

4.- Kirol entitateei dirulaguntzak 2001. Kirol Patronatua.

Kirol Patronatoak 2002ko urtarrilaren 28an emandako diktameneko proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Ondoren aipatzen diren kirol-entitateei hurrengo subentzioak ematea:

- PASAI DONIBANE KOXTAPE ARRAUNA	2.888,81 euro
- CLUB DEPORTIVO PASAJES	3.450,30 euro
- PASAI ANTZO TXIRRINDULARI ELKARTEA	740,51 euro
- CLUB DEPORTIVO TRINTXERPE	1.546,12 euro
- SANPEDROTARRA, C.F.	1.448,47 euro
- YOGA TALDEA	577,76 euro
- JAIZKIBEL MENDIZALE TALDEA	740,51 euro
- DONIBANEKO ARRAUNLARIAK	1.586,81 euro
- DONIBANE ESKUBALOIA	1.245,03 euro
- CLUB ATLETICO TRINTXERPE	4.113,34 euro
- ITSASMENDI	740,51 euro
- CLUB ATLETICO ILLUNBE	2.140,16 euro
- PASAI DONIBANE KOXTAPE PIRAGÜISMOA	1.505,43 euro
- ONINTZA	602,17 euro
- TRINTXER MENDI TALDEA	740,51 euro
- USOA, ARRANTZA, EHIZA ELKARTEA	577,76 euro
- AZKUENE	3.368,92 euro
- SANPEDROTARRA ARRAUNA	2.115,75 euro
- ITSASTARRAK MENDI TALDEA	740,51 euro
- SANPEDROTARRA TXIRRINDULARITZA	740,51 euro

GUZTIRA 31.609,89 euro

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-1409/01 eta A-1574/01 Baimenduen kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

5.- Gobernu Batzordeak 01-9-13an hartu zuen akordio bat berraztertzeko errekurtsioa. Talleres Indalbi.

Kontuan izanik ROMAN RIVAS GOROSTIAGA jaunak TALLERES INDALBI, S.L.-ren ordezkaritzan, idazki bat aurkeztu zuela OBRA TXIKIEN LIZENTZIA eskatuz La Herrerako (D Zona) zonan dagoen bere tailerra eraberritzeko, hau da, bi trenkada botatzeko eta bi oinetan baldosa berria jartzeko guztira 400 m² osatu arte.

Gertaturik Alkatetzaren 2001eko irailaren 24ko Ebazpenez espedienteari ekin zitzaiola legaltasun urbanistikoa berrezartzeko, obrak dagokion udal-baimenik gabe hasi zirelako.

Ikusirik 2001eko irailaren 13ko Gobernu Batzordean ukatu egiten dela eskaturiko lizentzia, jarduerak ez duelako lizentziarik eta portuko zonak Erabilpen Planik ez duenez, lizentzien kontzesio eta izapide denak suspendituak daudelako.

Kontuan izanik ROMAN RIVAS GOROSTIAGA jaunak TALLERES INDALBI, S.L. enpresaren ordezkaritzan 2001eko urriaren 5ean legaltasun urbanistikoaren berrezarpen-espedienteari ekitean alegatu zuela baimena Udalari 2001eko abuztuaren 3an eskatu ziola eta Portuko Agintaritzak baimena eman ziola abuztuaren 21ean obrak egiteko, eta gaizki ulertze bat eman zela. Berrito eskatu zuen baimena aipatu obrak egiteko.

Ikusirik 2001eko azaroaren 22an Indalbi, S.L. enpresak idazki bat aurkeztu zuela erreposizio-errekurtsioa tartekatuz Gobernu Batzordeak 2001eko irailaren 13an hartutako erabakiaren aurka eta berriro lizentzia eskatuz.

Gertaturik erreposizio-errekurtsioa epez kanpo dagoela tartekatua.

Kontuan izanik errekurtsio hau erabaki behar duela diktatu zuenak berak, hau da, Gobernu Batzordeak.

Kontuan izanik errekurtsioa ezin dela onartu, alde batetik, Euskal Herriko Ingurumenaren Babes Lege Orokorreko 61.1 artikulua eskatzen duelako obra txikiak egiteko lizentzia eman aurretik jarduera lizentzia eskatu eta lortu behar dela, JGOKA-ko jardueren arautegi barruan erortzen den jarduera industrialaz ari garelako, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

**ETA
EZ**



E R A B A K I D U

LEHENENGO.- TALLERES INDALBI, S.L.-k Gobernu Batzordeak 2001eko irailaren 13an hartutako akordioaren aurka 2001eko azaroaren 22an tartekaturiko erreposizio-errekurtsoa gaitzestea, alegatzen duenak ez dituelako Akordioaren fundamentuak desbirtuatzan.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari eman behar zaio jakinaraziz bere aurka liskar-auzi administratiboko errekurtsoa bakarrik dela bidezkoa notifikazio-egunetik hasita bi hilabeteko epe barruan.

6.- Herritarren zenbait erreklamazio egin omen zaizkien ondare-kalteak direla eta.

A) Luis Sabando Dehesa jaunak egindako erreklamazioa NA-0514-AX bere ibilgailuan 2001eko azaroaren 2an garbiketako orga batek eragindako kalteak direla eta.

Ikusirik LUIS SABANDO DEHESA jaunak egindako erreklamazioa 19.198,- pezetako fakturarekin (115.38 euro), aurreko ezkerreko atea konpontzeari dagokiona.

Halaber ikusirik Zerbitzu Departamenduaren txostena non errekonozitzen den kale-garbiketako zerbitzua izan dela kalteen eragilea, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Probatutzat ematea Nafarroan matrikulatuta dagoen NA-0514-AX, Ford Mondeo ibilgailua 2001eko azaroaren 2an udal-zerbitzuko kale-garbiketako orga batek kolpatu zuela, aurreko atean markak eginez.

BIGARREN.- Udalaren ondare-erantzukizuna ontzat ematea, zeina 19.198,- pezetako (115.38 euroko) kantitatekoa baita, aipatu kalteen konponketaren fakturari dagozkionak.

HIRUGARREN.- Kantitatea abonatu baino lehen ibilgailuaren titularrak zirkulazio-baimenaren helbidea zuzentzea gaur Nafarroako Zarrakaztelun daukana, zeren eta erreklamatzailaren helbidea Pasaiako Ulia etorbidearen 19 baita.

B) Fernando Da Silva jaunak egindako erreklamazioa SS-9981-AZ ibilgailua izandako kalteak direla eta (eskuin aldean markak), 2001eko irailaren 20an, Donibaneko pilotalekuaren atze aldean.

Ikusirik Fernando Da Silva jaunak formulatu erreklamazioa Pasai Donibaneko pilotalekuan atze aldean aparkatua zuelarik eragindako kalteak direla eta J.J. Otaegi plazako 3 zenbakiaren parean, 2001eko irailaren 20an.

Ikusirik espedienteko dokumentuak eta txostenak eta, bereziki, zonalde hori garbitzen duen Zerbitzu departamenduko enpleguak esandakoa, non adierazten duen berak ez dituela marka horiek egin.

Kontuan izanik, beraz, ez dela inolako probarik ekarri Udal honen ondare-erantzukizuna demostratuko lukeen agiririk, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- FERNANDO SA SILVA jaunak egindako ondare-erreklamazioa ontzat ez ematea kalteen eta zerbitzuaren funtzionamenduaren arteko kausalitatea ez delako probatu.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

C) NIEVES RUBIO MARTÍNEZ andrearen erreklamazioa 2001eko urriaren 13an erorita izandako kaltea dela eta Euskadi Etorbidea – Gudarien Plazako oinezkoen pasealekuan, olioaren ur-orban koipetsu bat zapalduta.

Ikusirik NIEVES RUBIO MARTÍNEZ andreak egin erreklamazioa ur-orban koipetsua zapaldu eta erortzeagatik 2001eko urriaren 13an, Gudarien Plazako oinezkoen pasealekuan.

Kontuan izanik ez dagoela probatuta galtzadan zegoen likidoa zakarrak biltzeko udal kamioiak botatakoa zela, zeren eta beste edozein ibilgailuk botatakoa izan baitaiteke, inguruan arraina garraiatzen duten asko igarotzen direlako.

Kontuan izanik erreklamazioaileak ez dituela ekarri lekukoaren izenak ezta orbanaren jatorria adierazi bide zion garbiketa-zerbitzuko langilearena ere.

Kontuan izanik posible dela gure udalerrian arraina garraiatzen duten kamioi asko dabilzala eta hauetako bat izan daitekeela oinezkoen zonaldean pilatutako likidoa bota zuena.

**ETA
EZ**



Kontuan izanik dena dela ez dela nahitaez egia aipatu likidoa bota zuena zakar-bilketako kamioia izatea, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Egindako erreklamazioa gaitzestea zeren eta kalteen eta udal zerbitzuaren artean ez dagoelako kausalitaterik.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsok adieraziz.

D) ALVARO LAKUNTZA AZKARATE jaunaren izenean ZURICH-ek egindako erreklamazioa, SS-7778-AT matrikuladun ibilgailuaren gurpilean eragindako kalteak direla eta, 2001eko abenduaren 22an zulotzar batean sartuz Arraunlari kaleko 40 zenbakiaren parean.

Ikusirik ALVARO LAKUNTZA AZKARATE jaunak egin erreklamazioa Pasaiaiko udalerrri honetako Arraunlari kaleko 40 zenbakiaren parean bere ibilgailuak atzeko eskuineko gurpila lehertu egin zela eta.

Ikusirik Zerbitzu, Obra eta Mantenimenduaren txostena, non adierazten den aipatu kalea ez dagokiola Pasaiaiko Udalari, itsas-lur domeinua delako, eta erantzukizuna Pasaiaiko Portuko Agintaritzari dagokiola.

Kontuan izanik halaber obrak egiten ari dena eta zulotzarra egin duena Añarbeko Ur Mankomunitatea dela, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Egindako erreklamazioa gaitzestea zeren eta kalteak itsas-lurraren domeinu publikoan gertatu direlako eta honen eskuduntza Pasaiaiko Portuko Agintaritzari dagokiolako eta ez Udal honi eta zulotzarra beste Administrazio batek herri-lanetan produzitu duelako eta, beraz, ez dagoelako lotura kausalik kalteen eta inolako udal-zerbitzuren artean.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsokin batera.

**ETA
EZ**



- Gaizerrendatik at eta bertan sartzea aurrez bertako zinegotziek aho batez berretsi ondoren, hurrengo gaiak tratatu dira:

7.- Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazioaren Sailaren enplazamenduak.

Ikusirik Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazioaren Sailak Pasaiako Udal honi egin enplazamenduak, Antzuola eta Lasarte-Oria Udalek tartekaturiko liskar-auzi administratiboko errekurtsioei buruz, 2001eko urriaren 16ko Aginduaren aurka, hau Ogasun eta Herri Administrazioako Andre Kontseilariak emana, Euskal Herriko Erkidego Autonomoan hiri bespiztearen aktuazio integralak apoiatzeko neurriak direla eta, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

Ez duerla ikusten aipatu Liskar Auzi Administratiboko Errekurtsioetara agertu beharrik.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 14:45etan, batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.